

PELLO ZUBIRIA

Guardian-ek petrolio merkearen amaiera berretsi zueneko

Energiaren Nazioarteko Agentzia (IEA, ingelesezko sigletan) urteotan mundua engainatzen saiatu da etorkizunean eskueran eduki dezakegun energia kopuruaz: barruan lanean jardundako adituek salatu dute IEAk aurrakusten duena baino petrolio eta gas gutxiago geratzen dela.

TERRY MACALISTAIR-EN KRONIKAK, laburra izanagatik, bonbaren pareko eztanda eragin zuen mundu osoan azaroaren 9an *The Guardian* egunkariko orrietatik. Energia arazoez diharduten webgune berezitueta errepikatu zuten berehala, adibidez *Crisis Energética* webguneak biharamunean eskaini zuen gaztelaniaz eta Euskadi Irratiak berak Jokin Aldazabalen ahotsetik ezagutarazi zuen egun gutxiren buruan euskaraz.

Hona gaia: Energiaren Nazioarteko Agentziak (IEA) etorkizunean erabili genezakeen energiaren kopuruak puztu egin izan ditu nahitara, AEBen presioagatik. "Hainbeste zalaparta albiste horregatik?" galde lezake irakurleak. Hona hiru arrazoi. Bat, biharamunean plazaratu behar zituen urtero bezala bere aurrakuspenak IEAk *World Energy Outlook* informarean edizio berrian. Bi, *The Guardian*ek energia gaitarako erredakzioburuaren eskutik auzitan jartzen zituen datuok erakundearen barruko iturriak aipatuz. Hiru, *The Guardian* den Londresko *establishment*aren egunkariak IEAri jipoi hori emateak zerbait esan nahi zuen.

"Mundua petroliorik gabe gertatetik askoz hurbilago dago orain arte iturri ofizialek onartu dutena baino -hasten zen Macalisterren

kronika- hala dio IEAko iturri batek, zeinak berresten baitu agentziak propio gutxietsi duela iristear daukagun urritasuna, merkatuetan panikoa nagusituko den beldurrez". AEBetako agintariaren bultzadaz, urteroko informetean bi eratako makillajeak egiten dira: gaur martxan dauden petrolio putzuen gainbehera den baino arinago erakutsiz eta, aldiz, aurki daitezkeen putzuen aurrakuspenak puztu.

Munduak erabili lezakeen petrolio kalkulatzerakoan, IEAk azken urteotan berretsi izan du gaur zorupetik ateratzen diren 83 milioi upeletatik abiatuta iritsi gaitzkeela egunean 105 milioi upeletara. Egia esan, kopuru horietara aurreko handiagoen beherapenetatik iritsia zen IEA: 2005an aurrakusi zuen 2030an egunean 120 milioi petrolio upel ekoiztu ahal izango zela. *The Guardian*eko Macalistairri iturri aitortu gabeko baina fidagarriak esan omen dionez "120 milioi upelen kontu hori zozokeria bat zen, betidanik, baina gaur aipatzen diren 105 milioiak ere ezin dira justifikatu, eta IEAan badakite".

Zergatik itxuraldaketa hori, galde-tu dio kazetariak bigarren iturri bati. "AEBetako agintariak ez haserretzatea da hor legea". Ingelesak ez garenok egiten ahal dugu esaldia- ren irakurketa zabalagoa: Mende-

Alastair Miller-ek sinatu argazki hau joan den urrian Parisen IEAk egindako biltzar nagusian aterea dago. Bertan ezkerretan ageri da Sushikumar Shinde, Indiako energia ministroa; berari bostekoa ematen Henry Kissinger AEBetako politikari zaharra, IEAren sortzailea; eta urrunxeago bikoteari begira Nobuo Tanaka japoniarra, erakundearen zuzendari exekutiboa. Energiaren Nazioarteko Agentzia osatzen duten gobernuetako ministroak Parisen bildu eta hilabetera plazaratu zuen erakundeak urteroko buletin famatua, World Energy Outlook (Munduko energiaren aurrakuspena). Lehendik aditu ugari salatu zuten haizatu dute orain IEAko barne iturri batzuek, anonimotasunean babestuta: IEAk puztu egiten dituela munduko energiaren aurrakuspenak.

baldeko herrialde kontsumitzaileetako agintariak ez sumintzea da kontua. Azken finean, 1974an IEA sortu zutenak Mendebaldeko herrialde aberatsak izan ziren, denen buru AEBetako Henry Kissinger zela, petrolio jarioa lehenbiziko zuten OPEPeko estatuei aurre egiteko.

Macalistairrek aitortu duenez, "orain 'peak oil' teoriak indarra hartu du munduan energia kontrolatzen duen *establishment*aren bihotzean". Espainiako edo Frantziako gobernuak, edo are Eusko Jurlaritzak edo Nafarroako Gobernuak, etorkizunerako planak burutzen dituztenean segi behar ote dute IEAren energia aurrakuspen puztuetan oinarritzen?

Gezurra, larru gorri

*The Guardian*en informazioaren inguruan plazaratu diren iritzien artean, nabarmentzekoa da Colin Campbell-ek idatzi duena Peak Oil webgunean. Campbell (Berlin, 1931) munduak aurrera begira erabilgai dauzkan energia iturrien ikerlari klasiko nagusietako da. Munduan zegoen petrolioaren erdia dagoeneko erre dugula eta hementik aurrera urrialdia datorrela defenditzen duen "peak oil" (petrolio gailurra) teoriaren aitetako bat da, ASPO erakundearen sortzailea.



Gutun ireki batean argibide gehiago eman nahi izan dizkio *The Guardian*eko Terry Macalaistarrari. Campbell-ek kontatu du 1969an izan zuela petrolioak jasan beharreko urritze-ari buruzko lehen albisteak. Amoco multinazionalaren aginduz –gaur BP energia konpainiaren barruan– munduko petrolioaren neurketa orokorra egin behar zuten. Geroago Noruegako Fina-rentzako ere ikerlanak egin zituen. Garai hartan erre-berbei buruzko datu publikoak usatzen zituzten.

Petrolioaren urrezko mendea, 1950-2050 deitu zuen lana ikusirik, Suitzako Petroconsultants enpresak ikerketa berriro egitea proposatu zion, baina oraingoan beraien data-basea oinarritzat harturik. Lan har-

tan ezagutu zuen Jean Laherrere, orduan Total frantsesean ari zena. Txostena bukatu zuten, Petroconsultantsek salgai jarri zuen kopia bat 50.000 dolarretan eta laster.... desagertu egin zen, AEBetako multinazional batek presio eginda.

Hala ere Petroconsultantsek laster beste liburu bat plazaratu zuten, *The coming oil crisis* (Datorren petrolio krisia), gorago aipatu ikerlanaren emaitzekin. 1998an Laherrere eta Campbell-ek *The end of cheap oil* (Petrolio merkearen amaiera) artikulu klasikoa publikatu zuten *Scientific American* aldizkarian. Ordurako aurreratzen zuten 2010an petrolio eskariak eskaintza gaitutuko zuela.

Campbell ohartu zen aipamen horiek publikatuta IEAk sutan jarri

zituela bere nagusiak, OCDEko herrialde aberatsak, eta aurrerantzean datuak makillatu egingo zituen, batik batik petrolio ez ohikoak (eskuratzen zailago eta garestiago direnak) kalkuluetan bestelako izenekin sartuz. Arrazoiak nabarmena da: IEAk herrialde aberatsetako kontsumitzaileen interesak defenditu behar ditu, eta petrolioaren urri dela esateak produktoreak indartzen ditu, OPEP-ekoak batik batik.

Campbell-ek ondo ezagutzen ditu gobernuak eta multinazionalak munduan dauden erreserbak direnak baino handiago erakusteko darabil-tzaten teknikak, eta batzuk espresuki esplikatu ditu. Baina egia atera da azkenean. Campbell-ek kalkuluetan, ohiko petrolioaren produkzioak gailurra 2005ean jo zuen. Petrolio urritasuna bestelako iturri garestiagoekin berdintzen da. Honek eragin du prezioen igoera, ekoizleek biltegietan pilatzea eta espekulazioa.


2008ko krisia Campbell-entzako energiari dago lotuta estu: urte horretan gaitutuko dute gailurra energia fosilek oro har. “Petrolio produkzioaren gailurrak –dio Campbell-ek– inflexio puntu historikoa ekarriko du. Bankuek gehiago mailegatu dute depositoan zeukatena baino, ziur zeudelako biharko hazkunde ekonomikoa zela gaurko zorraren bermea, baina ez dira ohartu hazkunde petrolio merkean oinarritu dela”. Horregatik iragartzen ditu prezioen igoera berriak eta beheraldi ekonomiko sakona.

Petrolio urriko zikloan zer datorkeen, hurrengo NET HURBIL-EN esango digute beste aditu batzuek. n



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624 · zinkunegi@euskalnet.net



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia

